| Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea | PRACTICUM - Eskuliburua |
|---|---|

| UPV/EHU | Nahitaezko praktikak | Data: 2022/05/01 |
|---|---|---|

# Ikastegiko kudeatzailea

# Ikastegiko arduraduna



| **HISTORIA** | |
|---|---|
| | |
| **0 Bertsioa** | **Graduko ikasleen atalak emana** |
| **1 Bertsioa** | **Praktiken zerbitzuak egindako 0. bertsioaren eguneraketa, 2019/08/06ko araudia indarrean sartzean aplikazioan egindako aldaketengatik.** |

# Aurkibidea

**Orrialdea**


ADJUDIKAZIOAK - ESLEIPENAK
- Esleitu saila 29
- Ikasle adjudikatuak 27
- Kudeatu egonaldia baliozkotuta daukaten ikasleak 29
- Plaza libreak dauzkan praktikak 28

ADJUDIKAZIOAK – ESLEIPENAK 26
ADKUDIKAZIOAK - ESLEIPENAK
- Adjudikatu gabe dauden ikasleak 26

ALBISTEAK 9
ALERTAK 8
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK 15
- Balidatu erakunde laguntzaileak 20
- Erakunde laguntzaileak 17
- Erakundeak 17
- Unitateak / Atalak 20

IKASLEAK 11
- Ikaslea/ak izen-ematea (Ikasleak Preinskripzioa) 13
- Ikasle-zerrenda 11
- Matrikulatutako edo izen-emateko fitxa daukaten ikasleen zerrenda 14

IKASTEGIAREN ETA IKASTURTEAREN HAUTAPENA 4
IRAKASLE TUTOREAK / INSTRUKTOREAK 29
- Instruktoreak (Begiraleak, Kanpoko tutoreak) 30
- Irakasle tutoreak 29

JAKINARAZPENAK 31
- Jakinarazpena erabiltzaile bati 32
- Jakinarazpenak taldeei 31

MANTENTZE OROKORRAK 10

Esparruak - espezialitateak 10
Esparruak – espezialitateak irakasgaiz 11
Tutoretzen protokoloa 10
PARÁMETROS 4
PRAKTIKAK 20
Balidatu autopracticuma ikasleak 25
Balidatu erakunde laguntzaileetako praktiken eskaintza 25
Balidatu praktikak hitzartutako ikasleekin 25
Praktiken eskaintza 20
Praktiken eskaintzen kopia 26
SARBIDEA – IKASTURTE BERRI BAT SORTZEA 4
ZERRENDAK / INSTRUKTOREAK
Ikastegian balidatutako erakunde laguntzaileen zerrenda 34
ZERRENDAK / KALKULU ORRIAK 34
Ikasleak / Izen-ematea zerrenda 34
Ikasturtean praktikaren bat duten erakunde laguntzaileak 34
Instruktoreak / Adjudikazioak 34
Praktiketako datu orokorrak 35
ZIURTAGIRIAK 33
Eskaera duten instruktore-ziurtagiriak 33
Eskaerarik gabeko instruktoreen ziurtagiriak 33
Ikasleen ziurtagiriak 33
Irakasle tutoreen ziurtagiriak 33
Plana / irakasgaiko ikaslearen ziurtagiria 34

## SARBIDE BALDINTZAK

- Sistema Eragilea: Windows XP SP3, Windows 7, Macintosh, Linux.

- Windows XPn, Internet Explorer nabigatzailea 7. bertsiotik aurrera; Firefox-en 3. bertsiotik aurrera; Google Chrome-n 35.0 bertsiotik aurrera eta Safari-n 5.17 bertsiotik aurrera.

- Windows 7-n Internet Explorer nabigatzailea, 9. bertsioa (32 biteko arkitekturak); Firefox-en 23.etik aurrera; Google Chrome-n 35.0 bertsiotik aurrera; Safari-n 5.17 bertsiotik aurrera.

- Macintosh-en hauek exekutatzeko bakarrik: Web HTML (No Oracle Form) profilak, Firefox nabigatzailea 23.etik aurrera; Safari-n 7. bertsiotik aurrera.

- Linux-en hauek exekutatzeko bakarrik: HTML Web-a(No Oracle Form), Firefox nabigatzailea 23.etik aurrera.

- Java, JRE 6 Update 16-etik JRE 7 Update 45-era (32 bit).

- Word 2007.

- Acrobat Reader (8.etik 11.era).

- Izenpe User 3.2.1.0 kit-a

# 1. IKASTEGIAREN ETA IKASTURTEAREN HAUTAPENA

Pantaila honetatik kudeatutako ikasturte akademikoak eta horien egoera bistaratuko dira. Kudeaketa ikasturte berri batean hasi ahal izateko, sakatu "Sortu ikasturte berria" botoia.




# 2. SARBIDEA – IKASTURTE BERRI BAT SORTZEA

Aurreko ikasturteko datu kopiatuak aldatu ahal izango dira, eta dagokion egoeran gorde, parametro guztiak osatuta badaude.




# 3. PARAMETROAK

## Datu orokorrak

Ikastegiari eta ikasturte akademikoari buruzko datu orokorrak. Ikasturte akademiko berria sortzerakoan txertatutako datuak dira. Atal honetatik aldatu daitezke.

"Egoera" eremutik ikasturtearen egoera kudeatzen da, harekin elkarreragiten duten erabiltzaileen ikuspuntutik. Honako egoera hauek kudeatzen dira:

**Definitzen**: Ikastegiko arduradunak bakarrik izango du sarbidea eta, izenak adierazten duen bezala, haren balioak definitzen ari dira. Beste edozein erabiltzailek ezingo du bertara sartu.
**Irekia enpresentzat**: Ikasturtearen egoera hau denean, enpresak webgunean sartu ahal izango dira praktiken eskaintzak egiteko. Ikastegiko arduraduna ere sartu ahal izango da.
**Irekia:** Erabiltzaile guztiek elkarreraginean jardun ahal izango dute, irekita dago kudeatzeko.
**Itxita**: Ikasturtea amaitutzat jotzen da. Erabiltzaileen ikuspuntutik, ikastegiko arduraduna sartu ahal izango da, eta gainerako erabiltzaileak bertara sartu ahal izango dira (daturen bat lotuta badute), hala ere, praktika egin izanaren ziurtagiria eta/edo tutoretzaren ziurtagiria eskatzea izango da ahalbidetuko zaien kudeaketa bakarra.

Eta ondorengo mezuen bidalketak kudeatuko dira:

**Mezu automatikoak bidaltzea ikasleari**: "Ez" markatzeak saihestu egiten du talde honi mezuak bidaltzea.
**Mezu automatikoak bidaltzea tutoreari**: "Ez" markatzeak saihestu egiten du talde honi mezuak bidaltzea.
**Mezu automatikoak bidaltzea instruktoreari**: "Ez" markatzean hasierako mezua bakarrik bidaliko da, erabiltzaile eta pasahitzaren informazioa duena.
**Enpresei mezu automatikoak bidaltzea**: "Ez" markatzeak enpresarentzat sortutako mezu automatikoak jasoko dituen helbide alternatibo bat sartzeko aukera ematen du.




## Irakasgai-planeko datuak

Practicum-a duen irakasgai-plan bakoitzeko, hurrengo balioak markatu beharko dira:

- Nor izango den irakasle tutoreei praktikak-adjudikazioak esleituko dizkiona: ikastegiko arduraduna edo saileko arduraduna
- Ikasleek autopracticuma txertatzea baimentzen den edo ez
- Automatrikularen moduluarekin konektatu nahi den
- Enpresei sartzen utziko zaien ala ez
- Praktikaren hasiera eta amaiera datak irakasgai-plan honetan (lehenetsita)
- Ordu kopurua

Hezkuntza ikastegien kasuan, Eusko Jaurlaritzako plazen karga egiterakoan, ezinbestekoa da karga hasi baino lehen, "Hasiera data", "Bukaera data" eta "Ordu kopurua" eremuak informatuta egotea.



Enpresa bat sisteman sartzen dugunean, sarbidea automatikoki balidatzen da eta GAUR-en bitartez sartzen da erabiltzaile eta pasahitzarekin. Aplikazioaren parametroetatik adierazi daiteke enpresak, irakasgai plan bakoitzeko, sarbidea duen edo ez. Balio hori sisteman eskaintzak txertatzerakoan kudeatzen da, hau da, enpresak eskaintzak txertatu ahal izango ditu enpresetarako sarbidean ("Enpresan sartzea") BAI markatu den irakasgai planetan.

## Titulazio-arduraduna

Atal honetatik sisteman kudeatzen den titulazio bakoitzeko arduraduna zehaztu ahal izango da.




## Izen-ematea (Preinskripzioa)

Erlaitz honetatik sistemak irakasgai-plan bakoitzaren izen-ematea (preinskripzioa) (BAI edo EZ) kudeatzen utziko du.
BAI markatuko da eskainitako praktiketan ikasleei izen-ematea (preinskripzioa) egiten utzi nahi badiegu; bestela, EZ markatuko dugu.




**Gida-irakasgaia**: ikasleak Practicumean matrikulatu aurretik, praktikak adjudikatu nahi badira, "Gida-irakasgai" baten berri eman ahal izango da, eta hori gaindituta izan beharko dute ikasleek zerrendan ager daitezen.

## Esleipena

Erlaitz honetatik esleipenari lotutako datuak parametrizatu ahal izango dira, hau da, ikasleen zerrenda antolatzeko irizpidea ezartzea:

- Egindako kredituen kopurua
- Espendienteko batez bestekoa
- Espedienteko batez bestekoa eta egindako kreditutak
- Egindako kredituak eta espedienteko batez bestekoa
- Izen-ematea noiz egina (Preinskripzioa)
- Matrikulatu-ordena




**Ikaslearentzako txantiloia eta irakasle tutoreantzako txantiloia** :

Ikasleei zein irakasle tutoreei zuzendutako dokumentu bat gehitu ahal izango da, adibidez, pratiken protokoloak…

## Gaitasunak irakasgai – plana

Erlaitz honen bitartez gaitasunen informazioa sartuko da “Berria” botoia sakatuz, luparekin titulazioa bilatuz eta dagokion testua eremu eleanitzetan txertatuz.




Jarraitu ahal izateko, plan guztien datuak eman behar dira.

# 4. ALERTAK

Atal honetan, aplikazioak mezu batzuk erakusten dizkigu, egin beharreko zeregin batzuk identifikatzeko. Honako alerta hauek kudeatzen dira:

- Erakunde laguntzaileen praktiken eskaintzak balidatu gabe daude
- Autopracticumeko eskaintza batzuk (ikasleak txertatutakoak) baliozkotu gabe daude
- Adostutako ikaslea duten enpresen eskaintzak balidatu gabe daude
- Matrikulatu gabe dauden ikasle adjudikatuak daude irakasgaian
- Irakasgaia baliozkotuta duten ikasle adjudikatuak daude
- Ikasle adjudikatu batzuk ez daukate irakasle tutorerik esleituta
- Ikasleeen ziurtagiri batzuk kudeatu gabe daude ikasturte honetan
- Ikasleen ziurtagiri batzuk kudeatu gabe daude beste ikasturte batzuetan
- Kanpoko tutoreen ziurtagiri batzuk kudeatu gabe daude ikasturte honetan
- Kanpoko tutoreen ziurtagiri batzuk kudeatu gabe daude beste ikasturte batzuetan
- Irakasle tutoreen ziurtagiri batzuk kudeatu gabe daude ikasturte honetan
- Irakasle tutoreen ziurtagiri batzuk kudeatu gabe daude beste ikasturte batzuetan
- Erakunde laguntzaile batzuk balidatu gabe daude
- Saila lotu gabe adjudikatutako plazak daude
- Egonaldia baliozkotuta eta plaza adjudikatuta duten ikasleak daude
- GAURen irakasgaia baliozkotuta daukaten ikasle adjudikatu batzuk daude




# 5. ALBISTEAK

Aukera honetan ikastegiko erabiltzaile arduradunak “Albisteak” deitu direnak administratzeko aukera izango du (testuak informazio gehigarriko url bat lotuta izan dezake) eta hautatutako talde bati bistaratuko zaio.




“Albisteak”-en klikatzerakoan, egindako albisteen eta abisuen zerrenda bistaratuko dugu, eta “Berria” klikatzean berriro txertatzeko eta argitaratzeko aukera irekiko dugu.

# 6. MANTENTZE OROKORRAK

## Tutoretzen protokoloa

Aukera honetan ikastegiko arduradunak edozein praktiketako tutoretzan egin beharreko oinarrizko tutoretzen egitura edo multzoa konfiguratu ahal izango du. Propietate bat erantsi da, “Erakutsi ikasleari”. Horri esker, identifikatu ahal izango da gertaera horietako zein erakutsi nahi zaion erabiltzaile ikasleari. (Erabilpen kasua: Ikasleei dei egiten zaien bilera kolektiboak)



## Esparruak - espezialitateak

Aukera honetan, ikastegiko arduradunak bere zentroko espezialitate ezberdinak sartu ahal izango ditu sisteman. Espezialitatea nahitaez plan bati lotuta egongo da eta espezialitate hori nahitaez bete beharrekoa den ala ez adieraz daiteke (derrigorrezkoa dela markatzen bada, ikasle batek ezingo du espezialitate X bateko praktika bat hautatu planak derrigorrezkoa den beste espezialitate bat jasotzen badu eta haren gaineko praktikarik ez badu eta, X espezialitatean adjudikazio bat badu).




Eusko Jaurlaritzako plazak dituzten ikastegiek, informatuta egon daitezken beste bi zutabe gehiago izango dituzte, "EJ" eta GVko espezialitatea".

## Esparruak – espezialitateak irakasgaiz

Espezialitateak irakasgaika kudeatzeko aukera ematen da. Planetan txertatutako espezialitateak irakasgaiei lotzeko aukera emango da.




# 7. IKASLEAK

## Ikasle-zerrenda

Nahitaezkoa da irakasgai plana definitzea. "Bilatu" sakatzerakoan, sistemak ikasleak bilatuko ditu:

- Izen-ematea (Preinskripzioa) egin dutenak
- Kudeatzen den aurreko ikasturte akademikoan gida-irakasgaian matrikulatuta daudenak
- Gida-irakasgaia gainditua eta irakasgai praktikoa edozein ikasturte akademikoan gainditu gabe duten ikasleak.
- Eta kudeatzen ari garen irakasgai praktikoan matrikulatuta dauden ikasleak.

Ikasleen zerrenda ordenatuta ateratzen da, "Parametroak" ataleko "Esleipena" erlaitzean markatutako antolamendu-irizpidearen arabera:

- Gainditutako kreditu kopurua
- Espedientearen batez bestekoa
- Espedientearen batez bestekoa eta gainditutako kredituak
- Gainditutako kredituak eta espedientearen batez bestekoa
- Izen-ematearen (Preinskripzioaren) data

Matrikulatuta dauden taldeko hizkuntzarengatik eta, baita ere, praktika adjudikatuta duten enpresarengatik bilaketa egiteko aukera ere ematen du.

Gainera, "Bilaketa-irizpide gehiago" sakatzean, sistemak bilaketa egiteko aukera gehiago eskaintzen ditu, "Ikasle-zerrenda":

- Izen-emateari (Preinskripzioari) lotua
- Izen-ematea (Preinskripzioa) eginda
- Baliozkotzearen egoera
- Adjudikazioren bat dauka
- Baliozkotzeko intentzioa (aurrehautaketa)
- Espezialitatea
- Kudeatutako asegurua dauka

Lerro bakoitzeko >> sakatzean ikasturte akademikoko adjudikazioen datuak ikusi ahal izango dira

**Adjudikazioak**

| Plana - Irakasgaia | Espezialitatea | Erakunde laguntzaile - Unitatea | Herria | Praktiken izenburua | Hasi. data | Amai.data | Ordu kop. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Multimedia Komuni... | | EUSKAL I... | Gasteiz | Practicum | 2021/03/... | 2021/05/... | 315 |

**Izen-ematearen (Preinskripzioaren)** datuak



Izen-ematea

| Erak lagu | Unitatea | Herria | Haut. ordena | Haut. ezetsia | Praktiken izenburua | Plaza kopurua | Adjudikatuta plaza kop. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AG... Elkar | Haurtxoak | Donostia | 1 | Ez | Gizarte hezkuntzako Praktikum I | 1 | 0 |

Ikaslearen **ibilbidea** (ikastegian ikasturte akademiko ezberdinetan adjudikatutako praktikak bistaratuko dira)



Ibilbidea

| Tut. | Ikasturtea | Eraku lagun - Unita | Herria | Praktiken izenburua | Plana - Irakasgaia | Espezialitatea |
|---|---|---|---|---|---|---|
| >> | 2020/21 | Peñ... | Bilbo | Gizarte Hezkuntza Graduko Practi... | Gizarte Hezkuntzako Gradua - Practicum I | |

Ikasle bakoitzaren datuetan sartuz gero (>>), practicumari lotutako ikaslearen datuekin pantaila bat erakutsiko da eta bertan ikaslearen baliozkotze egoera kudeatu ahal izango da:




Ikaslearen praktika baliozkotuta badago, ez da agertuko "Kalifikatzeke dauden ikasleak" zerrendan, ezta "Ikasle adjudikatuak"-en ere.

Baliozkotzearen egoera izan daiteke:

- Balidatu gabe: Lehenetsita.
- Egonaldia baliozkotua: Ez dute egonaldia enpresan egin behar, baina memoria egin behar dute eta, beraz, irakasle tutore bat lotuta izan behar dute.
- Memoria baliozkotua: egonaldia egin behar dute.
- Baliozkotua: Ikastegiko arduradunak badaki baliozkotu zaiola, baina oraindik ez dago ebatzita GAUR-en, ikastegiko arduradunak eman dezake horren berri.
- GAURen baliozkotua: ez dute praktika egin behar

## Ikaslea/ak izen-ematea (Ikasleak Preinskripzioa)

Menuaren aukera honetan ikaslearen preinskripzio datuak bistaratu eta/edo txertatu ahal izango dira. Aukera hau sakatzean, aplikazioak inprimaki bat erakutsiko du, eta bertan nahitaez irakasgai plana definitu beharko da. Erakutsitako irakasgai planen zerrenda izango da preinskripzioen kudeaketa aurreikusten duten irakasgai planena.

Emaitza (Ikasle) bakoitzeko, ikastegiko arduradunak preinskripzioaren datuak aldatzeko eta/edo txertatzeko aukera izango du. Preinskripzioa hasita badago, ikastegiko arduradunak sartutako datuak bistaratuko ditu eta preinskripzio hori amaitzeko aukera izango du. Preinskripzioa amaituta badago, ikastegiko arduradunak horri buruzko datuak aldatzeko aukera izango du.




Preinskripzioa ez badago hasita, aplikazioak libre dauden plazak bakarrik erakutsiko ditu.

Ikasle bakoitzaren datuetan sartuz gero, aplikazioak hurrengoaren antzeko pantaila bat erakutsiko du, eta bertan ikaslearen baliozkotze-egoera aldatu ahal izango da eta lotuta dituen oharrak sartu.

## Matrikulatutako edo izen-emateko fitxa daukaten ikasleen zerrenda

Menuko aukera honek praktika bati adjudikatuak izan daitezkeen ikasleak zerrendatzen ditu. Edo irakasgaian matrikulatuta daude edo irakasgai horretan aurrehautaketa egina dute. Aukera hau sakatzean, aplikazioak inprimaki bat erakutsiko du eta bertan nahitaezkoa izango da kudeatuko den irakasgai plana txertatzea.




Adibidearen emaitza:




Hirugarren zutabeko kolorearen bitartez, aplikazioak esleitutako ikaslearen egoeraren berri ematen du:

Beltza -> Ezeztatua  
Gorria -> Matrikula bajan  
Urdina -> Matrikulatu gabe

# 8. ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Atal honetan, aplikazioak aukera ematen du ikastegiarekin lankidetzan arituko diren enpresak kudeatzeko. Enpresen informazioa kudeatzeko, informazioa erakunde eta erakunde laguntzaileen artean banatu edo egituratu da. **Erakundearen kontzeptua legezko datuekin lotuta egongo da (IFZ, sozietatearen izena...) eta erakunde laguntzailearen kontzeptua, ikastegiarekin lan egingo duten enpresekin.**

Alta eman ahal izateko ezinbestekoa da IFZ.

“**Erakunde laguntzailea**”-ren erregistro berri bati alta eman aurretik “BERRIA” botoiarekin, bilaketa egin behar da IFZrekin:




Daturik agertzen ez bada, alta eman beharko da erakunde laguntzailearen datuekin, jarraian irekiko den pantailan.




IFZ horrek dagoeneko erakundeak lotuta baditu, sisteman alta emanda dauden erakundeak zerrendatuko dizkigu. Geziekin (>>) sartu ahal izango ditugu gure ikastegian praktikarik kudeatu ez dituztenak, “Balidatua” egoeran geratuz.

Interesatzen zaigun erregistrorik ez badago, BERRIA botoia sakatu eta erakunde berri bat sortu beharko da, adibidez, Eusko Jaurlaritzaren IFZrekin, hezkuntza zentroak.

Programak erakundeak sortzen ditu IFZ bati alta ematen zaionean.

Parametroetan “Irekia enpresentzat” jarri badugu, haiek webgunean sartu eta praktika eskaintza txertatu dezaten, enpresa balidatu beharko dugu.

Erakunde laguntzailea balidatzean, hark mezu elektroniko bat jasoko du erabiltzailearekin eta pasahitzarekin, aplikaziora sartu ahal izateko; Erakunde laguntzaileak edo instruktoreak hala eskatuz gero, pasahitzak aldatu ahal izateko funtzionalitate bat dago GAUR-eko SAS “Administratzailea” profilean.

Ikastegi batek sisteman alta emanda dagoen erakunde laguntzaile batekin harremana badu, baina kontakturako pertsona ezberdina bada, erakunde laguntzaile berri bat SORTU beharko du. Bestela, beste ikastegi batek erabiltzen dituen sarbide datuak aldatzen ariko ginateke.

## Erakundeak

Aukera honetan erabiltzaileak bere ikastegiak zein erakunderekin lan egiten duen zerrendatu ahal izango du.




Jarraian, jasotako datu-multzoa erakusten da erakunde bakoitzeko:



## Erakunde laguntzaileak

Aukera honetan erakunde laguntzaileen eta antolakuntza unitateen zerrendatzea eta bilaketa egin daitezke, eta baita, erakunde laguntzaile berri bat ikastegian txertatzea ere.
Aukera hau sakatzean hurrengo inprimakia erakusten da:



 ikonotik hitzarmena pdf-ean inprimatu daiteke, beharrezko datu guztiak osatu badira eta titulazioa zehaztu bada, erregistroaren xehetasunera >> gezien bidez sartuz.

 ikonotik justifikazio-memoria inprimatu daiteke.



Erakunde laguntzailea edo antolakuntza unitatea balidatua dagoenean, “Bai” markazioa izango du “Aktibo” zutabean.

Aplikazioak erakunde laguntzaile berri bat txertatzeko aukera ematen du, BERRIA botoiaren bidez. Botoi hori sakatzean aplikazioak txertatu nahi den enpresaren IFZ eskatuko du (kontuan izan behar da IFZ edo enpresa beste ikastegi batean erregistratuta egon daitekela, horregatik hainbat pausu ematen dira enpresa berri bat txertatzerakoan).



IFZ sartu ondoren, BILATU klikatuko dugu.

IFZ hori sisteman erregistratuta badago, IFZ horri lotutako erakunde laguntzaile guztiak agertuko dira eta horietako bat hautatzeko (>>) edo IFZ horri lotutako erakunde laguntzaile berri bat sartzeko aukera emango da. IFZ ez badago, aplikazioak inprimaki bat erakutsiko du, behar diren datuak jasotzeko:




Behar diren datuak sartu eta GORDE sakatzean, sistemak barrutik erakunde bat sortzen du eta berari lotuta erakunde laguntzaile bat (erakundea, ikastegiko arduradunak sartzen duenez, balidatuta txertatzen da).

## Unitateak / Atalak

Kontzeptu honen kudeaketa erakunde laguntzaile baten unitateak edo atalak kudeatzeko aurreikusten da. Aukera hau sakatzean hurrengo pantaila erakusten da:




## Balidatu erakunde laguntzaileak

Aukera honetan ikastegian balidatzeko dauden erakunde laguntzaileak erakusten dira (erakunde batek sarbidea eskatu dezake ikastegi batean eta eskaera hau ikastegiko arduradunak balidatu beharko du edo ez).

# 9. PRAKTIKAK

## Praktiken eskaintza

Menuaren aukera honetatik praktiken kudeaketa osoa egin ahal izango da. Praktikak, hasiera batean, plaza batzuk dituen eskaintza bat gisa ulertzen da, adjudikazio prozesuaren ondoren adjudikazioetara bideratuko dena. Adjudikazioan sortzen da ikasle-erakunde laguntzaile-instruktore eta irakasle tutorearen arteko harremana.

Menuko aukera hau sakatzean, hurrengo pantaila erakusten da eta bertan hainbat bilaketa irizpide eskaintzen dira praktiken zerrendak bistaratzeko:




Bilaketaren emaitza gisa, aplikazioak sartutako irizpideak betetzen dituzten praktiken zerrenda egingo du:




Praktika bakoitzeko, sakatzen badugu (>>) aplikazioak hurrengo pantailaren antzeko bat erakutsiko du:




## Datu orokorrak

Praktiken eskaintza sartu duten enpresak badaude, erlaitz honetan aplikazioak balidatzeko aukera ematen du, hau da, horiek argitaratzeko. Praktikak balidatzerakoan hainbat alderdi hartu behar dira kontuan:

- Autopracticuma edo ikasle adostua duen praktika bada, balidazioak esleitzea suposatzen du, hau da, ikasleari praktika adjudikatzen zaio.
- Ikasle adostua duen praktikaren kasuan, baliteke enpresak irakasgaia txertatu ez izana, baina aplikazioak datu hau txertatzera derrigortuko du.
- Espezialitateak kudeatzen direnean, aplikazioak espezialitateak txertatzera behartuko du, kudeatzen

badira, kontzeptu hori erabiltzen baita ikasleen aurreinskripzioan.

## EJko plazen kudeaketa

Plazen informazio xehetua biltzen da (ikus Eusko Jaurlaritzako plazak kudeatzeko eskuliburua)

## Begiraleak (Instruktoreak)

Praktikari lotu diren kanpoko tutoreen informazioa.




Kanpoko tutoreak erakuts diezazkigun, kanpoko tutoreek aldez aurretik alta emanda egon behar dute dagokien profilean.




## Izen-ematea (Preinskripzioa)

Aurrehautaketan praktika hau hautatu duten ikasleak.

Zerrenda honetan ikasleak agertuko dira parametroetan ezarritako irizpideen arabera.




## Adjudikazioak

Praktikari adjudikatutako ikasleen zerrenda







Aukera honetatik formakuntza proiektua (II eranskina) eta jabetza intelektualaren lagatze inprimakia (XII) sortzen dira, pdf fitxategian, dagokion zutabeko ikonoan sakatuz.

Eta adjudikazio berri bat sortzeko edo adjudikazio bakoitzaren datuak ikusteko aukera ematen da, geziak klikatuz >>

Adjudikazioetako batek ere ez badu kanpoko tutorerik lotuta, sistemak kanpoko tutorea eremua erakutsiko du, adjudikazio guztiak kanpoko tutore berari lotzeko. Prozesu hau praktikari kanpoko tutorea adjudikatzen zaion lehen aldian egin behar da, ondoren egiten diren

adjudikazioak, “Adjudikazioak” erlaitzaren barruko “Kanpoko tutoreak” eremuan egingo dira.

Ikaslearen adjudikazioan kanpoko tutorea aldatu nahi bada, “Kanpoko tutoreak” erlaitzean sakatu behar da. Alta eman gabe badago, “Berria” botoia klikatu behar da eta alta eman, izenaren gainean klikatu eta “Gorde”, horrela aurreko kanpoko tutoreak altaren data eta bajaren data izango ditu.

Kanpoko tutoreen zerrendan, praktikari lotutakoak eta enpresari lotutakoak zerrendatuko dira. Hauetatik praktikari lotutakoak zein diren adierazteko * erabiltzen da.
Adjudikazio bakoitzeko, sistemak lehio bat erakutsiko du hurrengo informazioarekin.




**Datu orokorrak**: adjudikazioaren datu orokorrak
Pantaila honetatik adjudikazioak egin daitezke eta, ikasle bati praktika bat esleitu badiogu, esleipen hori ezabatu dezakegu eta baita irakasle tutorea kudeatu ere.
**Irakasle tutoreak**: adjudikazioari lotutako irakasle tutoreen zerrenda. Ikasle batek (adjudikazioa) irakasle tutore bat eduki dezan, irakasgaian matrikulatuta egon behar du eta irakasle tutoreak alta emanda egon behar du irakats eskaintzan eta ikasleak matrikulatuta dauden taldeei esleituta.
**Kanpoko tutoreak**: zerrenda-kanpoko tutoreen kudeaketa. Kanpoko tutore bat adjudikatzeko, aldez aurretik alta emanda egon behar du dagokion profilean (ikus “Praktikak” atala)
**Tutoretzak**: adjudikazioari lotutako tutoretzak.

## Balidatu autopracticuma ikasleak

Ikasleek txertatutako praktikaren datuak bistaratuko dira. Praktika hauek balidatzean, sistemak praktika esleituko dio txertatu duenari.

### Balidatu erakunde laguntzaileetako praktiken eskaintza

Erakunde laguntzaileek txertatutako eskaintzen datuak bistaratuko dira. Eskaintza ikastegiaren kudeaketatik balidatu edo baztertu ahal izango da.

### Balidatu praktikak hitzartutako ikasleekin

Ikaslea hitzartua duen eskaintza bat balidatzean, baldintzak berrikusiko dira eta balidazioan praktika balidatu egoerara pasatzen da, adjudikazioa sortzen da hitzartutako ikaslekiko eta ikasleak kanpoko tutorea zehaztuta badu, esleitu egiten zaio.
Balidatu aurretik plana eta irakasgaia izan behar ditu.

### Praktiken eskaintzen kopia

Menuaren aukera honetatik aurreko urteetako eskaintza kopiatu ahal izango da balidatzeko zain geratuko da praktiken eskaintzan.

## 10. ADJUDIKAZIOAK – ESLEIPENAK

Bloke honetan, irakasgai-plan bateko ikasle guztien esleipena errazteko funtzionaltasunak eskaintzen dira. Jarraian, sistemak eskaintzen dituen aukerak deskribatzen dira.

### Adjudikatu gabe dauden ikasleak

Irakasgai-plan zehatz bateko ikasleen zerrenda, ikastegiko arduradunak parametroetan definitutako antolamendu-irizpidearen arabera ordenatuta.

Aukera hau sakatzean, sistemak hurrengo pantailaren antzeko bat erakutsiko du:




Ondorioz, irakasgai horretan adjudikatu gabe dauden ikasleak zerrendatzen dira.

Emaitzaren erregistro bakoitzeko, ikaslearen ibilbideko eta izen-emateko datuetara sartu ahal izango gara. Azken honetan (izen-ematea) adjudikazioa egin ahal izango da.

## Ikasle adjudikatuak

Aukera honetan zerrendatuko dira irakasgai plan jakin batean praktika bat adjudikatuta duten ikasleak.

Ikonoan  klikatuz, Excelen zerrenda bat atera daiteke praktika bat esleitu diegun ikasleen datuekin (praktikak egiten dituen enpresa, tutoreak, etab…)




Geziekin >>, adjudikazioaren xehetasunera joango gara




“Kudeatu ikastegiko tutorea” botoia klikatzen badugu irakasle tutorea izango dena bilatuko dugu. Irakasleak alta emanda egon behar du irakats eskaintzan, GAUR-en “Irakaskuntza praktikoak”-en.

Behin praktika kalifikatuta dagoenean, pantailan bistaratuko da; irakasgaiaren behin betiko nota, GAUR-en jarri beharko da.

Ikasle bati plaza bat esleitzen badiogu eta gero ikasle horrek irakasgaia baliozkotzen badu, adjudikazio hori “Ikasle adjudikatuak”-en ikusten jarraituko dugu eta alerta bat bistaratuko da esanez ikasleak daudela adjudikazioarekin eta irakasgaia BALIOZKOTUTA.

## Plaza libreak dauzkan praktikak

Plazaren bat libre duten balidatutako praktiken zerrenda.
Gainera, ikonoan  klikatuz, Excelen atera daiteke zerrenda.




## Esleitu saila

Aukera honetan praktikak hautatu ahal izango dira sail bati esleitzeko eta, ikasleei irakaslea esleitzeko ardura sailarena dela markatuta duten irakasgai planei lotutako praktikak bistaratuko dira.

## Kudeatu egonaldia baliozkotuta daukaten ikasleak

"Baliozkotutako egonaldia" egoera markatuta duten ikasleek ez dute egonaldia egin enpresan, baina memoria bat entregatu behar dute eta, ondorioz, irakasle tutore bat izan behar dute lotuta. Sistemak, kasu hauetan, barrutik, ezaugarri jakin batzuk dituen praktika bat sortzen du (ez dira beste inon kudeatzen), ikasle horiei irakasle tutore bat lotu ahal izateko. Ikaslearen baliozkotze egoera aldatzen bada, sistemak ikasle hauek erakusten jarraituko du (irakaslea esleitu bazaie, barrutik praktika bat esleituta balute bezela da), erabiltzaileak esplizituki desesleitu dezan.

# 11. IRAKASLE TUTOREAK / INSTRUKTOREAK

Atal hau tutoreei zuzenduta dago, bai UPV/EHUren barnekoei (irakasleak) zein kanpokoei (instruktoreak/begiraleak).

## Irakasle tutoreak

Irakasle tutoreak irakasgai planei lotuta daude. Beraz, ezinbestekoa da landu nahi den irakasgai plana definitzea. Datu hau nahikoa da irakasleen zerrenda lortzeko, horietako bakoitzaren adjudikazio kopuruarekin eta baita horien ordu kargarekin.

Ikonoan sakatuz , irakasle tutoreen zerrenda atera daiteke.




Xehetasunean sakatuz adjudikazioak zerrendatu ahal izango ditugu




Adjudikazio jakin batean sakatzen badugu, haren datuak bistaratuko ditugu




## Instruktoreak (Begiraleak, Kanpoko tutoreak)

Funtsionaltasuna aurrekoaren antzekoa da. Aukera hau sakatzean, aplikazioak bilaketa bat egiteko hainbat irizpide aplikatzeko aukera ematen du. Zerrendatzerakoan, adjudikazioren bat duten instruktoreak zerrendatuko dira.

Instruktore bat esleitzeko, aurrez alta eman beharko da hurrengo pantailan “Berria” botoia sakatuz.




Emaitza bakoitzeko xehetasunean sakatuz >>, instruktoreari eta tutoretzapeko ikasleei lotutako datuak bistaratuko dira.

ikonotik, Venia Docendiren eta Laguntza Jardueraren aitortza inprimatu ahal izango dira.

# 12. JAKINARAZPENAK

Atal honek funtzionaltasunak eskaintzen ditu kudeatutako taldeekin posta elektronikoaren bidez komunikazioa errazteko. Aplikazioak bi funtzionaltasun eskaintzen ditu:

## Jakinarazpenak taldeei

Aukera hau sakatzean, aplikazioak iragaz-pantaila bat erakusten du eta bertan ezinbestekoa izango da landu nahi den irakasgai plana identifikatzea (matrikulatutako ikasleekin lan egiten da). Datu hau osatzerakoan, eta "Bilatu" botoia sakatzerakoan, aplikaziotik bidalitako mezuak erakutsiko dira.



“Berria” sakatzean, aplikazioak hurrengoaren antzeko inprimaki bat erakusten du, eta bertan talde bat hautatu beharko da (taldeak aurrez definituta daude).



“Bidali” sakatzean, aplikazioak talde hori osatzen duen pertsona bakoitzari mezu elektroniko bat bidaliko dio. Taldeko norbaitek posta elektronikorik ez badu, pantailan mezu bat agertuko da izen-abizenak adieraziz.

## Jakinarazpena erabiltzaile bati

Aukera hau sakatzean, sistemak iragazki pantaila bat erakutsiko du, erabiltzaile motaren arabera iragazitako jakinarazpenak zerrendatzeko aukera emango duena:



“Berria” sakatzean, mezua bidali nahi den hartzaile motaren arabera, datu batzuk edo besteak bete beharko dira. Adibidez, ikasleren bati bidali nahi bazaio, “Plana/Irakasgaia” eremua bete beharko da, ondoren ikasle jakin bat bilatu ahal izateko.




# 13. ZIURTAGIRIAK

Atal hau ikastegiko arduradunak erabiliko du erabiltzaile ezberdinen praktikak egin izanaren ziurtagiriak izapidetzeko.

## Ikasleen ziurtagiriak

Ziurtagiri hau ez da 2021/22 ikasturtetik aurrera lortzen.

## Irakasle tutoreen ziurtagiriak

Irakasle tutoreek eskaerak egin ahal izango dituzte, hauek sortze prozesuan ez badaude. Eskaera bakoitzeko ikastegiko arduradunari agertuko zaio ikasturtean amaitutako adjudikazio guztien informazioa, eta sortutako txostenean kontuan hartuko ez den bat desmarkatzeko aukera emango zaio.

## Eskaera duten instruktore-ziurtagiriak

Eskaera bat egitean, ikasturte horretan amaitutako adjudikazio guztiak jasotzen dira. Ikastegiko arduradunak edozein adjudikazio hautatu edo deshautatu dezake, ziurtagiria sortzeko orduan kontuan har ez dadin.

## Eskaerarik gabeko instruktoreen ziurtagiriak

Aukera honetatik instruktore jakin baten ziurtagiria sortu ahal izango da,  ikonoaren bidez, edo aldez aurreko hautaketakoak, interesdunak eskatu gabe.

### Plana / irakasgaiko ikaslearen ziurtagiria

2021/22 ikasturtetik aurrera ez da ziurtagiri hau sortuko.

## 14. ZERRENDAK / KALKULU-ORRIAK

Atal honetan kalkulu-orriak lortuko dira, nahitaezko praktikei lotutako datuekin.

### Ikastegian balidatutako erakunde laguntzaileen zerrenda

Aukera honetan ikastegian balidatutako enpresei lotutako datuak zerrendatuko dira.




 ikonoan sakatuz, sistemak kalkulu-orri bat sortuko du datuekin, erabiltzaileak bere ekipoan gorde ahal izango duena.

### Ikasturtean praktikaren bat duten erakunde laguntzaileak

Aurreko kasuaren berdina, baina beste baldintza batekin.

### Ikasleak / Izen-ematea zerrenda

Aukera honetan Excel fitxategi bat sortu daiteke, izen-ematea duten ikasleekin.

### Instruktoreak / Adjudikazioak

Aukera honetan Excel fitxategi bat sortu daiteke, esleipenen bat duten kanpoko tutoreekin.

## Praktiketako datu orokorrak

Aukera honetan Excel fitxategi bat sortu daiteke, pantailan bistaratzen diren dautekin, edo "Sortu Excel osoa" botoia sakatuta, praktiketako datu guztiak dituen Excel bat.